

Donostiako Diputazio Jauregian, 1982.eko Otsailaren 26an, arratsaldeko 4etan hasi du Euskaltzaindiak hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. L. Akesolo, J. A. Arana, J. M. Aranalde, J. Etxaide, J. Fdez. Setien, X. Garmendia, J. Goikoetxea Maiza, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, P. Lafitte eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Urtarrilean aipatutako Oinarrizko Euskararen batzordea jaun hauek osatzen dute: J. San Martin buru, P. Uribarren, Gotzon Aurrekoetxea, Juan Luis Goikoetxea eta Norberto Agirre. Ohar honen eskariarekin onartu da aurreko agiria.

Nemesio Etxaniz ohorezko euskaltzain zenaren hil berria bere bizi eta lanen aipamena eginez gogoratu du J. San Martin jaunak. Gerra ondoan merezimendu haundiko ekintzak izan zirela On Nemesioren kantu berrien euskaratzea, idazlanak, antzerkiak eta agintariei egindako gutun irekiak esan du Jagon Sailburuak.

Euskararen Aholku Kontseilurako oraintxe izendatuak izan diren euskaltzainei zorionak eman dizkie Villasantek.

Goizeko bilkuren berri

Pertsona Izendegia. Argitalpen berriaren txostenari egindako oharrak kontuan izanik. Euskaltzaindiaren aginduz egindako lan hau bere argitalpen ofiziala dela erabaki da. Euskarazko hitzen itzulpenik ez da emango eta, horren ordez, erdal izenak dituzten itzulpenekin beste zerrenda bat ezarriko da itsaskintzat jendearen lagungarri. Frantziako legeak eta Elizaren erabakiak ere sartuko dira hitzaurrean.

Hiztegigintza. Euskaltzainen goizeko bileran martxoaren 15ean Gasteizen Zuzendaritzak egindako batzarraren berri eman da. Hiztegigintzako batzordea sortzeko asmoz bide urratze bat besterik ez bada ere, batzorde horren helburuak eta mugak hala nola bertan parte hartuko duten lankideen gaitasuna aipatu ziren. Zenbait jaun-andereen izenak ere aurkeztu ziren. Beste batez jarraitzeko utzi zen arazoa.

Literatura. Batzorde honetako buru den F. Krutwig jaunak Donostiako Diputazioetik hartutako gutun baten berri eman zuen, atzerriko zenbait idazleen lanak euskarara itzultzeko asmoa agertuz. Bertan aipatzen diren lanak ez direla lehen mailakoak uste du berak eta Diputazioko batzordekoekin harremanetan jartzea eskatu zaio. "Euskal Idazleen Elkargoa" sortu nahiz dabilen idazle multzo batek bilera egin duela-ko aipamena ere egin du denbora berean.

Egutegia. 1982.eko Egutegia aipatu du J. L. Lizundiak. Zenbait bilera eta ospeakizun zehaztasunak erabaki dira.

Batzordeen berri ematea

Dialektologia. Dialektologiako bilketa lana Atlaserako ere baliagarri izateko eran egin nahi bada, langile liberatuak beharko direla esan du idazkariak. Donaixtiko bileran erabakitzeke utzi da. Itaunketarako tresnen berri eman da beste alde, eta zerrenda osatu.

Euskararen lekukoak. Urtean zenbat ale atera ditzakegun eta lanak zertan diren ikusi du batzordeak. Igazkoetan sartzen da Lapeire. Mendiburu, Egiategi eta Belapeire datoz gero. Esku artean dira hauen ondatik, Gasteluçar, Elissanburu, Charlemagne pastoralara, Diego de Goitia eta Mogelen dotrina bat.

Gramatika. Rebuski-k bere tesia euskal gai bati buruz egin duela aditzera eman da.

Txostenak

"Kultur hitzen ortografiaz" mintzatu da F. Krutwig, gaztelera eredutzat harturik gauzak egiten ari garela salatuz. Beste hizkuntza nagusietan grekoen "orthographia" onartua izan dela azpimarratu du, hau euskararentzat proposatuz.

Juan San Martinek eskuratu berri dituen Diego de Goitiaren euskarazko esaldien bildumaz hitzegin du Euskararen-Lekukoetan argitaratzeko asmoz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi